

4. HE: IDATZIZKO AZTERKETA. IRITZI-ARTIKULUA IDAZTEKO ESTRATEGIA

INFORMAZIO OROKORRA

| | | | |
|------------------------------------|---|----------------------------|--|
| DATAK | Urriak 3 – Azaroak 3 (plataforma zabalik) Aurrez aurreko saioak: urriak 7 eta 28 | IKASGELA/ TOKIA | Aurrez aurreko saioak: IVAPeko 28. gela Lakua / Gasteiz |
| IRAUPENA | 15 ordu | ORDUTEGIA | Saio presentzialak: 09:00etatik 12:00etara |
| MATRIKULA EPEA | Irailaren 16ra arte | ONIRITZI EPEA | Irailaren 19tik 23ra |
| BAJA EMATEKO EGUNAK | Urriaren 3a eta 4a | HARTZAILEAK | EAEko Herri Administrazioetako langileak. Derrigorrezkoa da 3HE gaindituta izatea. |
| IKASLE KOPURUA | 15 | MATERIALA | Ikastaroan banatuko da. |
| IRAKASLEA | Garbiñe Doval (IVAPeko teknikaria). | AZPIEGITURA | Ordenagailua eta arbela. |
| DISEINUA | Garbiñe Doval. | | |

ZER LORTU NAHI DA

| | |
|------------------------------|--|
| HELBURU OROKORRAK | 4.HEko iritzi-artikulua sortzen trebatzea Iritzi-artikulu horien balorazioa egiteko irizpideak ezagutzea |
| HELBURU ZEHATZAK | <ul style="list-style-type: none"> - Iritzi-artikulua sortzeko eta baloratzeko prozesua lantzea. - Ikasleak testua sortzeko prozesu osoa ezagutzea: gaia aukeratzetik testua ebaluatzeraino. - Prozesuan sortuko diren zalantzeei erantzun praktikoa ematea. - Ebaluatzeko erabiltzen diren kontzeptuak ezagutzea (koherentzia, kohesioa, ...) eta sortuko duten testura zelan eraman lantzea. - Nork bere lan arloko gaiak eta hiztegia landu ahal izatea. |
| GAITASUNAK | Ikastaroa amaitzen denean ikaslea gai izango da iritzi-artikulua sortu behar duenean, protokolo jakin bati jarraitzeko, eta bide horretan behar dituen tresnak identifikatu eta erabiltzeko. Gai izango da, era berean, sortzen ari den testua ebaluatzeko eta, behar izanez gero, hobetzeko. |

4. HE: IDATZIZKO AZTERKETA. IRITZI-ARTIKULUA IDAZTEKO ESTRATEGIA

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA

- Arlo praktikoari emango zaio lehenetasuna.
- Lineako formatoak horretarako ematen duen aukera baliatuta, taldean (foroetan) lan egiten saiatuko gara. Ahal dela, arlo bereko ikasleak bilduko dira taldean.
- Unitate bakoitzean idatzitakoa talde txikian konpartitu eta komentatuko da. Komentario horiek irakasleak jaso, erantzun eta testu zati horren zuzenketa proposatuko du.
- Azken fasean testu osoa ebaluatzeko tresnak landuko dira eta nor bere iritzi-artikuluaren ebaluazioa eginda, irakaslearena jasoko dute.

1. unitatea (aurrez aurreko saioa, Lakuan)

- Aurkezpena: 4.HE, zer da?
 - Zein hizkuntza eredu erabili behar da?
 - Azterketa eredu
- Iritzi-artikulua: Ereditu bat aztertu: edukia/forma
 - Oinarrizko kontzeptuak: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna, zuzentasuna.
 - Nola sortu iritzi-artikulua: zer esan?, nola esan?
- Arlo bereko lan taldeak sortu.
- Ikastaroaren metodologia landu

2. unitatea: ZER ESAN

- Iritzia nola formulatu
- Informazioa lortu / Ideiak bildu
- Egokitasuna

3. unitatea: IDEIAK ANTOLATU

- Koherentzia
- Kohesioa
- Konexioa

4. unitatea: ESKEMA

- Paragrafoa
- Lexikoa
- Aberastasuna

5. unitatea (aurrez aurreko saioa, Lakuan)

- Linean egindako saioen balorazioa egin.
- Idatzietan agertu diren akatsen/arazoaren gainean lan egin.
- Sortu diren zalantzei erantzun
- Azken saiorako lana bideratu

6. unitatea: TESTUA SORTU

- Zuzentasuna
- Testuaren balorazioa

7. unitatea:

Aurreko moduluetan atalka landutakoa oinarri hartu eta gai bat emanda, iritzi-

PROGRAMAZIOA

4. HE: IDATZIZKO AZTERKETA. IRITZI-ARTIKULUA IDAZTEKO ESTRATEGIA

artikulu osoa idatzi. Taldearen eta irakaslearen balorazioa jaso.
Zalantzak argitu.

EBALUAKETA

- **Ebaluaketaren helburua:** Ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.
- **Ebaluaketak jaso beharko du:** Ebaluaketa egiteko saioetan eskatuko diren ariketak eta azken moduluko testua neurtu eta baloratuko dira.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen balorazio inkesta

ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA

Bete beharreko baldintzak:

Aurrez aurreko saioak: % 80ko bertaratzea.

Lineako saioak:

- Zereginen % 80 egitea eta irakasleak ontzat ematea.
- Azken saioko zeregina egitea ezinbestekoa izango da.

128 €

PREZIOA

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.
EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk